



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERAREN GAINEKOA, 2018/08/03KOA

Uztaileko azken egunak eta abuztu hasierakoak zailak ari dira izaten Arabako mahastietarako. Onddoak garatzeko oso baldintza aproposak izan dira eta, horren ondorioz, gorrina edo mildiua agertu da ia denean, eta horrek kezka eragin du bai Arabako Errioxan bai Arabako txakolinean.

Mahasti gehienetan, mildiua orrietan baino ez da agertu; agerraldi orbanak ikusten dira, batzuk gorago, beste batzuk beherago, tratamenduak egin ziren unearen arabera. Beste mahasti askotan, ordea, mahats mordoetan ere agertu da, eta mahats aleetan ere eragin du (mildiu larbatua). Mahasti horietan, baldin baldintzak nabarmen okertzen ez badira eta uda sasoi honi dagokion geldialdi begetatiboa gertatzen bada, onddoak ez dira arazo izango pare bat asteren buruan.

Onddoen eraginik kaltegarriena Ebrotik gertuen dagoen eremuak jasan du: Lapuebla, Eltziego, Guardia hegoaldea, Mañueta eta Bastida. Beste udalerrri batzuetan, hala nola Lezan, Navaridasen eta Eskuernagan, mildiurekin batera harria ere bota du aurten.

Nolanahi ere, zona goiztiarretako mahastietan kolore aldaketaren hasiera ikus daiteke (M1 egoera), hots, mahats aleak kolorez aldatzen ari dira, urte arrunt batean baino 3 edo 4 egun geroago. Eskualde horretako mahastien % 75ek mahats ugari dute, eta mahats ale eta mordo handiak dituzte. Izurrite eta gaixotasunei dagokienez, egoera kontrolpean dute oro har eta oraingoz.

Bestalde, botritis agerraldi batzuk izaten ari dira normalean baino lehenago eta, beraz, oso adi egon beharko da mahatsa bildu aurreko aldiaren eraso gogorragorik gertatuz gero haiei aurrea hartzeko, eta are gehiago aurrez mildiua edo harriak mahats aleak kaltetu baditu. Oidio gaixotasun endemikoari eta mahastietan eragiten duten gainerako gaitz edo izurriteei dagokienez, urte arruntetako balioetan gaude.

Arabako Errioxarako esandakoak berdin balio du Arabako Txakolinerako: han, ohituago dauden arren aurtengoak bezalako baldintzetara, berdin-berdin dira kexu onddoen eragina dela eta.

Datozen egunotan arretaz jarraitu beharko dira ingurumen baldintzak (abuztuko lehen egun hauetan atsedean apur bat eman dute) eta onddoen bilakaera lurzati bakoitzean, eta mahastiak ondo baino hobeto babestu beharko dira ikusi arte ez dela orban gehiago agertzen, eta tratamenduen epeak errespetatu beharko dira. Era berean, ez da puntarik moztu eta historik

kendu behar aurrez tratatu ez badira, eta lur lantzeak eta/edo belar txarrak kentzea saihestu behar da, onddoak agertzeko arriskuak dirauen bitartean.

Guardia, 2018ko abuztuaren 3a.
Antonio Remesal Villar
Ingeniari agronomoa
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua